

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

Musika arloko beka

2024ko ekitaldirako aurrekontu orokorrean egitaratzeko udal araudiaren IV. Eranskinean deialdi hori arautuko duen araudia jasotzen zen, honako hau izanik:

Musika ikasteko beka emateko oinarriak arautzen dituen dokumentua

I. Lege eta ekonomia esparrua

Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, horrela definitzen ditu diru-laguntzak: administrazioak pertsona publiko eta pribatuei ematen dien dirua, betiere honako baldintzak betetzen badira:

- Hartzaillearen kontraprestazio zuzenik ez izatea.
- Helburu jakin bat betetzeko, proiektu bat gauzatzeko, jarduera bat burutzeko, jarrera berezi bat hartzeko edo egoera bereziren bati aurre egiteko bideratuta egotea (egina edo egiteke), betiere, hartzailleak aurrez ezarritako betebeharrak material edo formalak konplitu beharko dituelarik.
- Finantza proiektu, ekintza, jarrera edo egoera horren helburua izatea erabilera publikoko eta interes sozialeko jarduera bat edo helburu publikoren bat sustatzea.
- Aipatutako 38/2003 Legearen 9. artikulua xedatzen du, diru-laguntzak eman aurretik, emakida arautzen duten oinarriek ezarritako arauak onartu beharko direla, legez ezarritako terminoetan. Oinarri hauen helburua da Barrundiako udalerrian musika ikasketetarako beka emakida-esparrua arautzea.

II. Baldintza orokorrak

2.1. Barrundiako udalak beka emango dizkie honako musika-ikasketak egiten dituzten adingabe guztiei, baldin eta Barrundian erroldatuta badaude: 1. mailako irakasgaiak, musika-hizkuntza, instrumentua, armonia modernoa, instrumentu-taldea edo comboa, ahots-taldea eta irakaskuntza indartua edozein "udal musika eskolatan".

2.2. 2023-2024 ikasturteko ekitaldian zehar (2024ko irailaren 1era bitarte) egindako ikastaroen arabera onartuko dira beka eta honako terminoetan eskainiko da diru-laguntza:

- Musika eskolako titularrak likidatutako kuota, kontuan izanik beka zenbatekoa erroldatu eta erroldatu gabeko arazo diferentzialaren ehuneko 100ekoa izango dela.

III. Balizko hartzailen definizioa

3.1. Musika ikasketetarako beka hartzailen baldintza hauek bete beharko dituzte:

– Laguntzen eskatzaile eta balizko hartzailen 2023ko urriaren 1aren aurretik Barrundian erroldatutako familia-unitateko kide izan beharko dute.

Deialdiaren ondorioetarako, familia-unitatea izango da honako multzoetako batean kokatzen dena:

a) Ezkontideak eta 2.1 oinarrian aipatutako mailetan matrikulatuta dauden adingabeko seme-alabek osatua.

b) Bikote egonkorrek (legedia espezifikoaren arabera) eta matrikulatuta dauden adingabeko seme-alabek osatua.

c) Legezko bereizketa kasuetan, edo ezkontza-loturarik ez dagoenean, edo bikotekide egonkor zein bizilagunik ez dagoenean, amak edo aitak eta 2.1 oinarrian aipatutako mailetan matrikulatuta dauden adingabeko seme-alabek osatua.

3.2. Laguntza-xede den adingabeko ikaslearen ama, aita, tutorea edo haren zaintza eta babesaren arduraduna izango da eskatzailea.

IV. 2024an Musika ikasteko beken gehieneko zenbatekoa eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

4.1. 2024rako esleitutako beken zenbatekoa, guztira, ezin izango da 5.000,00 eurotik gorakoa izan. Epe barruan aurkeztutako eskarien arabera, diruz lagundu beharreko gehieneko zenbatekoa hartarako aurrekontuaren gordailua baino handiagoa bada, laguntza bakoitzaren gehieneko zenbatekoa murriztu egingo da, aurrekontu-gordailuak estali ahal izateko moduko portzentajearen.

4.2. Eskaria eta dokumentazioa 2024ko urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira Barrundiako Udalaren erregistro orokorrean.

4.3. Hartzailleak honako dokumentazioa aurkeztu behar du:

- Musika ikasketetarako beka eskariaren inprimakia.
- Ordainketa egin izanaren agiria.
- Udal musika eskolako zuzendariaren ziurtagiria, ikaslearen ikasturteko aprobetxamenduari buruzkoa.
- Eskatutako bekekin eta izan litezkeen beste batzuekin gain-finantzaketarik izango ez dela jasotzen duen zinpeko adierazpena.
- Hirugarrenaren alta-inprimakia behar bezala beteta, beka lehendabizikoz eskatzen bada edo zenbatekoa kontu-korrente berri batean sartzeko eskatzen bada.
- Zergen eta segurantza sozialaren betebeharrak betetzen dituenaren zinpeko adierazpena.

V. Laguntzen tramitazioa

Kultura Udal-zerbitzua arduratuko da oinarri hauetan araututako beka eskariak tramitatzeaz eta organo eskudunari esleipena proposatzeaz, hala badagokio.

Denen ezagutzarako argitaratzen da.

Ozaetan, 2024ko martxoaren 27an

Alkatea
IGOR MEDINA ISASA